

BIGARREN ATALA: LEIOA SORTU ZENETIK BEREIZTU ZEN ARTE

SARRERA

1526. urtera arte -orduan sortu baitzen Leioa Erandioko elizateetik bananduriko entitate gisa, Leioaren iragana Erandioko herriari lotu zitzaion. Beraz, data zehatz horretaraino, behintzat, gure elizatearen iraganaren berri izan gura badugu, ondoko herriko historiara jo beharko dugu.

Erandiori buruzko lehen berriak -hain zuzen ere, Araucotarren etxeari buruzko berriak, gaurko Arriaga auzunean zegoen haien orubea- Alfontso III.a Handia, Asturiasko erregearen kronika batean ageri ziren, 886. urtean. Bertan, Bizkaia berbaren lehen aipamena ere jaso zen, baina ez zen inon ere Leioa aipatu. Hurrengo berria 1100. urtean jaso zen, Erandioko Santa Maria eliza zabaldu zen urtea. Horren arabera, populazio gutxi eta sakabanatua zuen artean Erandio-Landak, eta litekeena da Leioan bertan kokaturiko baserri batzuek ere osatzea hango populazioa, baina ez dugu haien berririk jakin.

Oso datu gutxi, zeharkakoak edo daturik ez badago Erdi Aroan, are urriagoak dira aurreko garaietan, eta, hortaz, azal-azaletik azalduko ditugu.

HISTORIAURREA

Homo erectus gizakia bizi zen Kantauri aldean Erdi- eta Goi-Atxelensean (Behe-Paleolitoan, orain dela 1,2 milioi urte); gizaki horren aztarnak aurkitu berri dira Atapuercan. Aztarnategi behinen horretan egin diren ikerketei esker, jakin dakigu garai hartan gizakia, batez ere, bilketan eta itsaski-bilketan aritzen zela. Euskal Musteriensea izeneko aldian (Erdi-Paleolitoa, gure aroaren aurreko 64.000-32.000 urte), Neanderthal gizakia izan zen gizabanakorik esanguratsuena. Gizatalde horiek animalia handiak ehizatzen zituzten eta haitzuloak erabiltzen zituzten aterpe. Halaber, ibai-sapaldetan bizi izan ziren eta barrualdeko nahiz itsasertzeko eremu garaietan. Horixe ondorioztatzen da aldi horretakoa den gertuko Sopolako Kurtzia aztarnategiko aurkikuntzek eman dizkiguten datuetatik. Goi-Paleolitoan, (gure aroaren aurreko 40.000-30.000 urte), Cromagnon gizakia edo Homo Sapiens izenekoak agertu zen, eta euskal lurraldean Mendebaldeko Pirinioetako ereduaren arabera bilakatu zen. Hezur-industriaren aldi gorena izan zen (gai horrekin, orratzak eta arpoi propulstazailedunak egiten ziren). Kostaldetik hurbil eta garaiera txikiko aztarnategietan, Auriñaziar aldiko (30.500-27.000) tresna ugari aurkitu dira, hala nola Kurtzian eta beraren eragin-eremuan. Baliteke Leioan ere kokalekuak egon izana, ingurua behatzeko leku aparta baitzen, baina ez da aztarnarik heldu gugana. Epipaleolitoan (9.000/8.500-5.000 BC), klimak hobera egin zuen, eta tenperaturak igo zirenez gero, glaziarrak urtu eta itsas trasgresio bat jazo zen, hots, kostaldeak urgaineratu ziren. Aldi horretako gizataldeak, gehienbat, ehizan (oso eraginkorra zen, arkuak asmatu baitzuten), bilketan, arrantzan eta itsaski-bilketan aritu ohi ziren.

Neolitoan garai berria hasi zen eta komunitateak senitartekotasun-loturari eusten hasi ziren, matriarkatuari, hain zuzen ere. Horrela, harreman gutxi izaten zen komunitatetik kanpo. Nekazaritzan hasi ziren, animaliak etxekotzen, lanabesak leuntzen eta zeramika lantzen, eta gizakien aro berriari lotu zitzairen; beraz, oso bestelakoa izan zen garai hori, aurrekoaren aldean. Horrez geroztik, aurrerapenak gero eta arinagoak izan ziren. Kalkolitoan eta Metal Aroan, kokalekuak aire zabaleko herrixka ugari izan ziren, eta abeltzaintza transhumantea oso garrantzizkoa izan zen. Bestalde, trikuharrien kultura agertu zen, ondoko Berangon kasu.

Esan gabe doa Historiaurrea ikertzeko, idatzizko aztarnarik ezean, aztarnategietan aurkituriko gizakien hondar eta gauzakiak baliatzen direla. Leioan bi gauzaki¹ besterik ez da aurkitu, eta bakanak direnez, ez dute alde honetako historiaurreko iragana berregiteko aukerarik ematen. Alde batetik, eskisto edo arbel beltzeko ustezko bifaza dugu, Paleolitoko aurkikuntza bakarra, Ondizko baselizatik oso gertu aurkitua. Beste alde batetik, Peruri auzunean, Neolitoko esku-errotak aurkitu zen. Gainera, teoria baten arabera, iruna egon zen leku horretan. Idazle batzuen arabera, ideia hori ez da oso zentzugabea, bazter horretako ezaugarriei erreparaturik, eta orduko gizataldeek, euren burua babesteko, kokaleku garaietan bizitzeko joera izan zutelako kontuan harturik. Hala ere, hipotesia ez da egiaztatu.

ANTZINAROA

Erromanizazioaren aurretik, Leioa karistiarren mendeko lurraldean zegoen, baina giza populazioa izan zelako nabaritasunik (matriarkatuan oinarritua, familia monogamikoak klan edo gentilitas zirelakoetan elkartzen ziren, eta horiek tribuetan, abeltzaintzan jarduten zuten mendietan eta nekazaritzan haranetan, eta basoak ustiatzen zituzten) ez da ageri.

Erromanizazioak iraun zuen bitartean, Bizkaia, eta beraz Leioa, Saltus Vasconum (horrela deitzen zioten erromatarrek gure artzain-eremu basotsu honi) horren barruan zegoenez, lehorreko bide handietatik bazter geratu zen, hots, erromatarren lurralde eta kultur menderaldia zabaldu zeneko bideetatik bazter. Izan ere, alde honetako erromatarren lekukotasun bakarrak bi enklabe dira (Forua eta Ranesko kostaldeko oppidum delakoa, Zierbenan) eta beste aztarren batzuk, hain zuzen ere, Plentzian, Sopelan eta Getxoko uretan aurkituriko txanponak.

K.o. V. mendean, germaniarren inbasioek ekarri zuten Erdi Arorako igaroaldia. Baina, berriz ere, Leioako elizatea indarrez sartzeko berezko bidetik iparraldera zegoen. Hala eta guztiz ere, 453. urtean, herular piratek Bizkaiko itsasoaren ekialdeko kostaldeak suntsitu zituzten, eta, nork daki, Leioatik bertatik piraten itsasontzien belak ikusiko ez ote ziren.

ERDI AROA

Lehenik eta behin, garai hartako testuinguruaz jabetzeko, derragun Goiz Erdi Aroan Hispaniako bisigodoen erresumak, frankoek, asturiar erresumak eta musulmanek behin eta berriro estutu gura izan zutela Baskoniako dukerria. Ekonomia antolatu eta populazioa Akitaniara aldatu ostean, Baskoniako dukerria VII. mendean eratu zen eta Akitaniako hegoaldeko kostaldetik, penintsulako iparraldeko isurialdean zehar, Kantabriaraino hedatzen zen. Inguru horri buruzko eta bereziki Bizkaiari buruzko Erdi Aro Goiztiarreko agiri gutxi aurkitu da, baina Alfontso III.aren kronika baten arabera (900. urtea), jatorriko biztanleek gobernatu ohi zuten Bizkaia, lehen aipaturiko lau fronteen estualdiak gorabehera. Gure lurraldean ezagun den lehen gobernatzailea, agirietan "momi bizcayensis" izenarekin ageri dena, Momio Velaz Arabako kondea izan bide zen. Alabaina, badirudi Bizkaian ez zela konde edo jaun egonkorrik izan IX. mendera arte: 1040. urtean hasi zen jaunen segida, Iñigo López lehena izanik, 1379a arte, data horretan Gaztelako errege-erreginek eskuratu baitzuten titulua.

Bizkaia agirietan agertu zeneko lehen aipamen horren aurretik, urte batzuk lehenago, Leioari buruzko zeharkako aipamen bakarra jaso zen. 896. urtean, Iñigo de Araucok (Esguín de Arauco, leinuaren aurrenekoaren ondorengoa) bere deiturari datxekion oinetxea eraiki zuen Erandioko gaurko Arriaga auzunean. Esguín delako hark frankoen errege bati lagundu zion galdutako lurraldea berreskuratzearen, eta, horretan oinarri harturik, Leioa Baskoniako dukerrikoa izan zen VII-IX. mendeetan.

Harrez geroztik, Leioari buruzko aipamenak oso urriak ziren, eta, izatekotan, jaunen genealogia eta Bizkaiko Jaurerriaren aipu egiten zuten. Leioaren gaineko zantzurik izan ez arren, berri orokorrek lagunduko digute orduko inguru irudikatzen. Esaterako, badakigu XI. mendean, Iñigo López Bizkaiko jauna zela (1040-1077), Bizkaia Nafarroako eremura uztartu zela, erregearen familiakoekiko ezkontza batzuk zirela bitarte; baina 1075. urtetik aurrera, Gaztelako eremuari lotu zitzaion, eta Bizkaiko jaunak Najera galdu zuen, Araba eta Gipuzkoaren truke. Geroago, Lope Iñiguezek (1077-1093) Baskongadak gobernatu zituen eta jaurerria bilakatu zuen bere deituraren jaraunspen-ondare; halaber, mulsumanen lurraldean aurrera egin zuen.

Garai luze horretan, kristautasuna ezarriz joan zen eremuan, gerora Bizkaiko komunitateetan eragin handia izan zuen -eta askotan oso eztabaidagarria izan zen- prozesu baten ondorioz. IV. mendean, hain zuzen ere, 303-305 urteetan, Emeterio eta Zeledonio martiriak hil ziren Kalagorri; basilika bat zegoen han. V. mendean, Kalagorri Tarraconense erromatarren probintziaren azken hiria zen, eta haren jurisdikzioa denbora luzean hedatu zen Euskal Herriko hegoaldean. Baionako gotzain-barrutia, Gipuzkoan jurisdikzioa zuena, Armentiakoa, Araban jurisdikzioa zuena (871. urtea), eta Iruñea eta Najerakoak, Nafarroan eta Errioxan jurisdikzioa zutenak, hurrenez hurren. Enkarterria Okako gotzain-barrutiaren mendekoa izan zen (464. urtea), gero Valpuestakoarena (804) eta gero (1084) Burgosko artzapezpiku-barrutiaren mendekoa, harik eta 1754an Santanderreko gotzaindegia eratu zen arte.

Lehen esan bezala, Bizkaia -eta beraz, Leioa- Kalagorriko gotzain-barrutikoa izan zen aurren-aurrenik, baina arabiarrek azpiratu zutenean, Armentiakoko gotzaindegiak eta Izurtzan zein Arantzazun egoitza zuten artzapez bik gobernatu zuten. Hala, XVI. mendera arte, Bizkaiak lotura guztiak galdu zituen Kalagorriko agintariekin. Halaber, esan beharra dago X. mendean, Done Jakueren bidearen bigarren mailako ibilbide batek zeharkatzen zuela euskal kostaldea. Esan gabe doa, garai hartan, Donejakue Compostelako Europa osoko espiritualtasun-egoitza nagusia zela.

Denbora joan eta XII. mendea etorri zen, eta horrekin batera, Erandiori buruzko lehen erlijio-aipamena. 1100. urtean, Erandioko Santa Maria eliza sortu zuten Junquera eta Trabudua oinetxeetako jabeek. Nagusi laikoek sorturiko elizek, Erandiokoak bezala, divisera izena zuten, nagusi haiek baliatzen baitzituzten hamarrenak edo detxemak eta apaizak aurkezten zituzten (sorrera errege-erreginen ekimenez egiten bazen, realenga izena ematen zitzaien). Erandioko parrokia hari harlanduzko kanpandorrea erantsi zieten XIV. mendean, leiho eta arku gotikoekin, eta XV eta XVI. mendeetan zaharberritu zuten. Hainbat basiliza zituen mendeko, Barakaldon, Leioan, Asuan, Sondikan eta Loium, baina denbora igaro ahala, parrokia eta elizate aske bilakatu ziren. 1436 aldean, Erandiokoaren mendekoak ziren Sondika, Fano eta Ondizko basilizak eta Elexaldeko basiliza-gunea. Hantxe sortu zuten 1526. urtean San Joan Bataiatzailearen izenpeko eliza, gero eta sinestun gehiagoren erlijio-beharrizanei erantzuteko.

Mende horretan, Diego López de Haro I.ak (1093-1124) Doña Urrakari lagundu zion Aragoiko Alfontso Borrokariaren aurka, baina Gaztela mendean hartu zuen, eta, hortaz, Diegoren agintea eten egin zen Bizkaia eta Arabako lurraldeetan. Lope Díaz de Harok (1124-1170) Gaztela eta Leongo Alfontso VII.a erregeari lagundu zion, eta jaurerria kendu zioten; Enkarterrira eta Santander aldera erbesteratu zuten, Bizkaiko beste noble batzuek Nafarroako erresuma sortu berriari babes eman ziotelako. XIII. mendean, jaurerria aldizka izan zen Gaztelaren etsai eta adiskide. 1366. urtean, Pedro Ankerra erregeak Ingalaterrako oinordekoari, Printze Beltza izenekoari, Bizkaiko kostaldea laga zion Enrike Trastamarakoaren aurkako laguntza eskuratzearren. Pedrok galdu zuen arren, denbora-tarte batean, ingelesak Bizkaiko eta Castro Urdialesko jaun izendatu zuen bere burua. Bizkaiko bando edo leinuak oinaztar eta ganboatarretan bananduta zeuden ordurako, eta esku hartu zuten gatazka hartan, baina atzera egin zuten Najerako guda izan baino lehen. Tello jauna hil zelarik (1370), Enrike errege berriak Juan semeari eman zion jaurerria, eta 1379az geroztik izan zen errege. Data horretatik aurrera, monarka eta jaurerriaren loturaren ikur ziren korrejidoreek "gobernatu" zuten Bizkaia.

Handik aurrera, leinuen arteko gerrak nagusi izan ziren lurraldean. Horiei buruz mintzatuko gara jarraian.

Leinuen arteko gerrak

Ekonomiaren krisialdia ageri-agerikoa izan zen Bizkaian XIII. mendearen amaieran. Gosete eta izurriteak zabaldu, eta jaunen errentak txikitu zirenez, nekazari, hiri, elizaren detxemak eta jaun aurkarien kontrako presioa areagotu zen. Orduan, bi leinuen arteko gatazkak hasi ziren:

a) Oinaztarrak (Oinatiko Gebara etxetik hartu zuten izena): oinaztarren leinurik edo enda behinenak Butroe eta Mujika etxeak ziren. Horiek Gernika, Busturia eta Nerbioi ibaiaren eskuinaldean nagusitu ziren.

b) Ganboatarrak (Mendoza etxetik hartu zuten izena, Uribarri Ganboakoak): Abendaño eta Salazar etxearekin elkartu ziren. Bi etxe horietakoak nagusi ziren Arratia haranean, Enkarterrian eta Gernikako itsasadarraren ekialdean.

Zenbaiten arabera "ez da Leioan Erdi Aroko garaietan euskal lurrak guztiz hondatu zituzten leinuen arteko gerrei loturiko istilu, segada edo leinuren arrastorik"; ildo horretatik, "Leioan dorre txiki bat dugu garai horietako lekuko, eta, defentsa edo mehatxuzkoa izan beharrean, prebenitzeko eta zaintzeko erabiltzen ei zuten"². Alabaina, nabari da jaunen arteko gerrek garrantzia izan zutela Leioan, beste leku batzuetan utzitako arrastoak Leioan izan ez arren. Izan ere, Leioako kokaleku estrategikoa aintzat hartu zen antzina-antzinatik. Horren froga garbia dugu herriko bizkarretan hiru dorre eraiki izana: Artatzakoa, Gaztelueta izeneko bazterrekoa (horietatik bietatik Abra eta Getxoko lurrak jagoten zituzten) eta Ondizko, "Torrea" izenez ezaguna, itsasadarra eta ondoko lurrak zelatatzeke barrandaria.

Erandion -denbora joan ahala Leioa banandu zeneko elizatea-, Butroe etxe oinaztarren leinua nagusi zen, eta eskuinalde osoa izan zuen mendean. Alde horretan, leinu batekoek eta bestekoek aliantzak egin zituzten lur gehiago kontrolatzeko eta nekazariak lur horiei kateatzeko. Nekazarien bizibaldintzek, ordea, okerrera egiten zuten, jaunek herri-lurrak besterenganatzen zituztelako. Horixe egin zuen, esaterako, Gómez IV.ak, Butroeko jaunak: ezkontzak hitzartu zituen Martiartutarren leinu txikiekin (leinu horretako senitarteko txikiak Ondiz eta Alzagan bizi ziren) eta Erandioko Santa Mariako Asuatarrekin³. Azken leinu horretan, beste enda batzuk nabarmenak ziren, hala nola, Alzaga, Agirre, Arauco, Artetxe, Susunaga edo Uribarritarrak.

Butroetarren indarra azaldu zen Gonzalo Gómezek, leinu horretako V. jaunak, 1375an Zamudioko Elvira Sánchezekin ezkonduak -eta, beraz, Otxandategiko jaun bilakatu zenak- sari bikainak lortu zituela Enrike II eta Juan I.aren garaietan, besteak beste, Bermeo eta Armintzako errotak, 1381ean, eta Barrikako elizatea 1388an.

Garai gatazkatsu horretan hiri asko sortu zen elizate batzuen jurisdikziopean. Bestalde, Ipar itsasoa merkataritza geraldian zegoen, eta horrek isla nabaria izan zuenez Bizkaiko ekonomiaren garapenean, behar-beharrezkoa zen bakeari eustea negozioak lantzeko, populazio-gune berrien, alegia hirien,

egoera juridiko berriak negozioak sustatzen baitzuten. Horrekin batera, leinukoen gehiegikerietatik babesteko eskatzen zuten etengabe nekazariak, eta ermandadeak eratu ziren jaunen bidegabekeriei aurre egiteko. Hala ere, hiriek leinu bati edo batzuei lagun egin zieten. Are Gonzalo Moro korrejidoreari aurka egin zioten, eta borrokan ibili ziren berarekin Erandio-Landan, 1415.ean.

Bakea ezartzeko egin ziren ahaleginak gorabehera, gatazkak berriro hasi ziren, eta Enrike IV.a erregeak Pedro Fernández de Velasco, Haroko II. kondea, bidali behar izan zuen lurraldea baketu zezan, erregeorde titulua eman ziola; baina izendapen horrek zekarren kontraforu eta kondeak egindako bidegabekerien zioz (Juan Alonso de Mujika eta Pedro Abendaño erbestera zituen), leinuak adiskidetu ziren eta Velascoren aurkaria bilatu zuten, Pedro Manrique, Treviñoko kondea, hain zuzen ere. Nolanahi ere, Velascok horren berri izan zuenez gero, armada bildu zuen Burgos eta Balmasedan eta Uribeko merindadera joan zen, Erandioko erriberatik, Axpe, Lamiako, Fadura, Berango, Sopela, Urduliz igarota, Gataraino, Butroetarra ustekabean harrapatzeko.

Denbora joan ahala, bizkaitarren leialtasuna Isabel eta Fernandoren alde jarri zen, haiekin batera ondorengotza-gerran -Erre-erregina Katolikoak aldarrikatzeko gerran- parte hartzen zuten jaunei krimenak barkatu baitzizkieten. 1487an, Chinchillako ordenamendua dela bide, Lurralde irekiaren aurkako aldizkako gerra-aliantzak (leinuak nagusi ziren horietan) baztertu zituzten eta Koroaren kontrol administratiboari men egin zioten.

ARO MODERNORAKO IGAROA

Ekonomiaren krisialditik XV. eta XVI. mendeetako susperraldira Arestian azaldu dugun krisialdiak eragin handia izan zuen Bizkaian. Agiri zaharretan, ugari dira jendez husturiko eremu, baserri huts eta hilen eremuei buruzko aipamenak. Hori dela eta, Bizkaiko jaunak hirietan zeuden nekazari auzotartuen kopurua murriztu zuen, edo lehengo estatutu juridikoarekin jarraitzera behartu zituen, sarraskia pairatu eta han-hemenka sakabanaturik zegoen biztanleria berriro bildu eta gizarte egoera ez aztoratzeko, nahikoa nahasita baitzegoen ordurako.

Beste alde batetik, merkataritza harreman iraunkorrei eusterik ez zegoenez -izurria agertu bezain pronto eten egin behar baitziren-, komunitateek nekazaritza beregaintasunera jo zuten. Hala, sagarrondoak eta txakolina egiteko mahastiak, ortuariak eta zituak (artatxikia, garagarra, zekalea, oloa eta gari apurra) landatzen zituzten, gaztainak (egosita, txiki eginda edo irinetan jaten ziren, zituen ordeztako) eta frutak batzen zituzten. Aurrezaintza neurri gisa, mendi eta basoen herri-erabilera murrizten hasi zen. Behiek, zaldiek, ardiek eta txerriek osatzen zuten azienda.

Maiorazkoak jabetza lar zatikatzea saihesten zuen, eta hori krisialdia arintzeko ongarria zen, baina ez zien eragozpen guztiei aurre egiten. Hala ere, horiek guztiak ere apurka-apurka konponduz joan ziren.

Eguneroko bizimodua

Herri xeheak nozitu eta aurre egin behar izaten ziren lehen aipatu ditugun pairamen guztiei: gerrak, gaixotasunak, gosetea... Ederto antzematen zuten orduko herritarrek eguneroko bizimodua gero eta latzagoa zela.

Zelan bizi ziren leioaztarrak Erdi Arotik Aro Modernorako igaroaldian? Bada, ez dugu ezelako iturririk Leioako gure arbasoen bizitza zelakoa zen zehatz-mehatz jakiteko. Ez da zaila irudikatzen, ordea, egoera baretu eta leinuen arteko gerrak eteten zirenean, bertako gizon-emakumeak bizi zirela egurrez egindako etxebizitzetan. Era berean, denbora igaro ahala, egurrarekin batera, harria erabiltzen hasi ziren, sarritan gertatzen ziren suteen arriskua apaltzeko. Etxebizitza haiek barreiatuta zeuden herriko alderik goienean. Badirudi Leioako populatzea Goiherri eta Erandiko-Landako biztanleen finkapenaren luzapena izan zela, Lertutxetik Peruriraino doan zerrendan. Zerrenda horretan, nekazaritzan aritzen ziren bete-betean: lurra landu, artzaintza eta basoak ustiatzen zituzten, egurra, hostoak eta fruituak eskuratzeko. Apurka-apurka lursailak zatitu ziren familia bakar bat mantentzeko neurrian, eta lurzati txiki horiek belaunaldiz belaunaldi jaraunsten ziren familia-buruak haren ustez egokiena zen oinordekoa hautzatzen zuenean; hala ere, lurzati handiak gorde izan ziren beti herri-erabilerarako.

Bi ezaugarri zituen propio antzinako euskaldunak, eta bi ezaugarri horiek begi-bistako isla izan zuten Leioan: alde batetik, familia, etxe eta auzo bateko partaide izatea, eta, bestetik, jaiotzatik heriotzaraino bizitzari zentzua ematen zioten jainkozaletasuna eta erritualismoa. Aro Modernoa joan ahala, familia patriarkal ugaria hagako familia murrizta, aitita-amama, guraso, seme-alaba eta senitarteko ezkongaberen batek, eta, oro har, izeko-osabek osatua, bilakatu zen apurka-apurka. Familiak, gizartearen oinarri nagusiak, etxearen izena zuen. Batzuetan, etxeak berak hartzen zuen etxeke baten ogibidearen izena. "Senidetasuna indartzea" deritzona ere gertatu zen Leioan. Horri jarraiki, senar-emazteen seme-alabek jatorri eta leinu argientzat jotzen zuten familiako kide batekiko lotura azpimarratzen zuten, eta hura lehen deituratzat hartzen.

Baina landa-ekonomia garatzeko, zeregin batzuk familia bakar batek ezin egin eta zenbait taldek beren esku hartu behar izaten zuten, eta, hortaz, instituzio handiagoa behar zen horietarako: auzoa. Auzoek gizartearen artapena eta talde osoaren erritualizazioa jorratzen zituzten. Gainera, auzoa bere buruaz jabetu zenean, komunitatearen gobernua eskuratzea erabaki zuen eta, une hartan, Leioako auzotarrek erabaki zuten Erandioko elizatearekiko lotura etetea.

ELIZATEAREN SORKUNTZA

1526ko urriaren 31n, hamarrenak kobratzearen gaineko auzi baten ostean -luze-luzea izan ei zen, baina guk ez dugu horren berririk- alde batetik, Erandioko Santa Mariako nagusi Juan Alonso de Mujika, Butroeko jauna, eta hango kabildoko benefiziodunak, eta, bestetik, Leioako eta Leioagoitiako auzotar eta biztanleak bilduta, epaia eman zen San Joan Bataiatzailearen eliza Erandiotik⁴ banantzeko.

Leioaztarrak kostatuta ahala kostatuta ahalegindu ziren bertako eta hurbileko parrokia lortzen, antza denez honako arrazoi hauengatik: Leioako biztanleria nabarmen hazi zen (XV. mendearen erdialdetik XVI. mendearen erdialdera Bizkaian gertatu zen susperraldi eta demografiaren hazkundearekin bat), biztanleak alde garaietatik haranetara jaitsi ziren hango lur emankorrak landu eta ibaiko errota-jarduera hasi berrian aritzeko, eta mezataria entzuten Erandioraino joan behar izatea saihesteko. Dena dela, erandiotarrek ez zuten etsi egin, eta hainbat baldintza ezarri zizkieten leioaztarrei, besteak beste, Leioako biztanleak Erandion lurperatzea eta erlijio-jaiegun jakin batzuetan, meza entzuten hara joatea. Denboraren poderioz, betebeharrak hori, erlijio-mendekotasunaren ezaugarri, galduz joan zen.

Gainera, herriko parrokia izan zuten unetik bertatik, elizate lokabe gisa antolatu ziren, eta Diego de Aretxabaleta hautatu zuten fiel errejidorea (gaur egungo alkatea). Diego de Aretxabaleta Gernikako Batzar Nagusietarako ahaldu edo ordezkaria ere izan zen. Harrez geroztik, Leioak 36. jarlekua (eta 46.a gero) eskuratu zuen batzarretan. Eta hori guztia ez zen lortu indarra erabiliz, negoziaketa baizik. Erakundearen independentzia sendotu zenez -edo, beharbada, horregatik-, Leioak sarritan izan zituen auziak ondoko elizateekin, baina Leioa tematu zen lurraldearen osotasunari eusten Getxo eta Erandioren aurrean. Horiek Artatzako hareatzak eta Santimamiko alde batzuk, hurrenez hurren, eskuratu gura baitzituzten.